

Walter Benjamin pentsalariari buruzko ihardunaldiak Iruñean


GORKA ARRESE / DONOSTIA

Walter Benjamin hil zenetik irai-lean berrogeitamar urte bete zirela eta, idazle eta pentsalari juduari buruzko ihardunaldiak antolatu ditu Nafarroako Unibertsitateak bihar eta etzi bitartean. Bost hizlari mintzatu dira Nafarroako Museoko hitzaldi aretoan: Rolf Tiedemann, Andrés Ortiz Osés, Ana Lucas, Patxi Lancersos eta Francisco Jarauta.

Benjamin, Berlinen jaio zen 1892 urtean. Kafkaren lagunmina izaki, idazle txekiarraren obraren inguruko azterketak egin zituen, eta baita Baudelaire, Proust edo Brecht-en obraren ingurukoak ere. Bere libururik garrantzitsuenak hala ere 'Arte obra produkzio mekanikoaren garaian' da, artearen, teknologiaren eta gizartearen arteko harremana jorratzen duena.

Benjaminen Theodor W. Adorno ezagutu zuen 1923an eta Frankfurt-eko Eskolarekin lotura handia izan

zuen. Moskura abiatu zen 1926an eta Danimarkara 1934an Bertold Brecht bisitatzera. Gestapo bere bila hasi zen orduan, eta Estatu Batuetara ihes egiteko bisatua eskuratu arren, ez zuen bere helburua lortu.



Walter Benjamin.

Gasteizko Bideo Musikalen VI. Festibala



Telebista pantailez osatutako totema da Bideoaldiko sinboloa.

OLALDE

Negu Gorriak eta Delirium Tremens-en bideoak gaur agertuko dira lehiaketan

LUIS KARLOS GARCIA / GASTEIZ

Gasteizko Bideoaldiak aurrera jarraitzen du bere bigarren egunez. Gaur Euskal Herriko nahiz estatu espainiarreko izen sonatuen lanak pantailaratuko dira. Euskarazko zintzen batz bestekoa %10era helduko da festibalean.

Joandako asteburuan eta gasteiztarren harridurarako, hiri erdiko kale batean telebista pantailez osatutako

totem bat agertu zen, aintzinako liburuxka eta argimutil batzurekin batera. Hauxe da Gasteizko Musika Bideoen VI. Festibaleko sinboloa.

Gaurko ihardunaldian lehiaketara aurkeztuko diren bideoen bigarren proiektzioa burutuko da hamasei zinetekin, Villasuso jauregiko lehenengo aretoan eta iluntzeko 20'00etan hasita. Hasiera batean Bideoaldira aurkeztu ziren zerrenda handi hartatik 50 hautatu dituzte.

Pantailaratutako diren bideoen artean bost dira Euskal Herriko ekoizleek tajututakoak. Hala nola, Gasteizko Irudi eta Teknologia Berrien Zentruak egindako bi: 'Luz Nomina-Nomina Luz' eta Negu Gorriak taldearen kanta batean oinarritzen dena. Bestetik, Jose Perez Urresti ekoizle gasteiztarrek 'El Gusano del

Pantano' izenekoak aurkeztuko du. Delirium Tremens taldearen 'Kurrela Baten Aitormenak' kanta Enrique Urdanoz eta Manolo Gil iruinarrek egin dute, bai eta 'Nafarroa Oinez' zinta ere Oskorri taldearen musikaz eta Nafarroako jende ezagunak abestua.

Lehiaketan parte hartuko duten gainerako bideoen artean honakoak dira ezagunenak: Anton Reixa galegoaren 'No vuelvas nunca mas', Los Secretos talde madildarrarentzat egin zuena; Mano Negra talde frantsesaren 'Guayaquil City'; Ketamaren 'Loko'; eta 'Naturaleza muerta', Danza Invisible taldearen musikan oinarrituta dagoena.

Lehiaketaren ostean gaueko 21'00etatik aurrera emakumeari buruzko bideo sorta eskainiko da.

BORDA
LIBURUAK
BIDAIETAKO
LIBURUDENDA
MENDIAK
NATURA
KIROLAK
Santimameneko kobak, 2 - Tfnoa. 415 94 65
BILBO ZAHARRA

ARGIA
Industrialde a, 1 - 2 pabilioiak
LA SARTE

Gabriel Aresti
Euskaltegia
Tel. 423 23 12 BILBO Gran Vía 24, 1.ª



ETOR

Esku liburu berriak Durangon

- ANTTON J.P. Iratchet (PRESTATZAILEA Patri Urkizu)
- IPUINAK Txomin Agirre (PRESTATZAILEA Sebastian Garcia Trujillo)
- LITERATURA VASCA: SIGLO XX Jon Kortazar
- EUSKAL LITERATURA (VI) S. Onaindia

IBAIK ETA HARANAK

EUSKALERRIKO GIDA OROKORRA

Natura eta gizartea
Ekologi eta paisajea

Arte eta historia
Industria eta komunikabideak

- IBAIAK ETA HARANAK, ez besterik, da EUSKALDUNAK, MENDIAK eta ITSASOA kolekzioen jarraipena.
- ETOR'ek bakarrik egin dezake bere kolekzioen jarraipena.
- Textu eta ilustrazioaren kalitateak bereizten gaitu.
- ETOR'en ikurra kalitatea da.

☐ Informazioa jaso nahi dut	☐ Harpidetu nahi dut
Izen-abizenak:	
Zuzenbidea:	
Telefonoa:	Herria: C. Postal:
Banketxe:	Sukursala: c/c:
Ordainkera:	☐ dena batera
☐ epeetan	☐ 10 epe 10.070 pt.koak
	☐ 20 epe 5.035 pt.koak
Firma:	

ETOR
EDITORIAL
ARGITALETXEA
C/ Euskal Herria 2 2º Apdo 193
Donostia Tlf: (943)421249 - 423502

PLAZARA

KULTUR ALDIZKARIA

- * Kronikak
- * Toponimia
- * Elkarrizketak

- * Kultur panoramika
- * Eritzia
- * Literatura

AI GUREAK BALIRA

- * Atal berria: itzuli dugun ipuinaren egilea asmatzeko gai al zara?

Sari bikainek daude zure esku!

DURANGOKO Azokareko
BILDUMA BEREZIA
prestatu dugu

EGIGUZU BISITA!!!